

DANTZARI ZOROAREN ORDUAK

Asel Luzarraga

Pertsonaien zerrenda:

Suizida (S)
Orduen Orratza
Minutuen Orratza
1. mozkorra (1M)
2. mozkorra (2M)
3. mozkorra (3M)
4. mozkorra (4M)
Jainko Nagusia (JN)
Herio Jainkoa (HJ)
Sexu Jainkosa (SJ)
Bizi Jainkosa
Mutikoa (Mu)
Neskatoa (N)

EKITALDI BAKARRA

(Gela biluzia. Erdian ohe zabala, izarak nahastuta, eta gizon bat ohearen ertz batean jesarrita, eskuan pistola bat daukala. Ohe inguruan emakume bi etengabe jiraka, Orduen Orratza eta Minutuen Orratza, baten ibilera oso motela, bestearena bizkorra. Gelako ezker aldean lau mozkor mahai baten inguruan musean jokutzen. Mahai gainean botila bat ardo erdi beterik; mahai azpian hamar ardo botila eta lau botila ardo. Gelako eskuinaldean jainko bi kuxinetan jesarrita, bata bestearen artean, batek ereinotza buruan, eta jainkosa bat ahoz gora etzanda kuxin pila baten gainean, biluzik hirurak)

1M- (Edalontzia betez) Txantxibilin, txantxibilin, gabiltzarian Elorrioko kaletan, hamalau atso tronpetata jotzen azpi astoren ganian... (Abesten dihardu nekatu barik)

S- To be or not to be, that is the question... Ez, uste dut ez dela oso orijinala hori, eta esaldi orijinala esan gura nuen nik. Baina horretarako ere ez nago, antza... Mossen Bernat, jakin bahu gauza nola jinen zen... Ez, hori ere baten batek esan ei zuen nik baino lehenago. Eta gainera ni ez naiz Mossen Bernat... Azkenean neure buruaz beste egin beharko dut historiarako esaldi bat utzi barik. Hau bai hau ezbeharra. (Pistolari begira) Eta zuk ez didazu ezer esan behar, ez didazu kaxoi batean gordetzeko eskatu behar? Ez, lagun, jakintzak inor ez zaiana heriotik aldentzen etorriko. Gainera, ez duk bideoa programatu gaueko konkurtoa grabatzeko eta bihar ez duk ikusterik izango, besteak beste, garbituta egongo haizelako (pistola ahoan sartu eta pentsakor gelditu da). (Pistola ahotik aterata) Ez, oraindik ezin dut egin. Ezin dut neure burua hil aurrena nork aurkituko nauen jakin barik. Ipiniko duen izu aurpegia begitandu behar zait ezer egin aurretik (hausnarketan geratu da, besoak antxumatuta).

2M- Bost gehiago.

3M- Ba.

4M- Kontuz, hogeita hamaikaren keinua ikusi zioat.

2M- Zer ikusiko huen hik; tira, betezak edalontzia eta ixildu.

(1Mek kantuka jarraitzen du)

JN- Asper-asper eginda nago. Errukarriren bat baletorkit, behintzat, esanez: (ahotsa zorrotzuz) “Jauna, arren, libra nazazu heriotik”...

HJ- Jubilazioa, hori besterik ez dut behar. Aurrejubilazioa, hobeto esanda. Zertarako nago ni, Herio Jainko ahaltsuau, gizaki ziztrinek nik bezain ondo egiten badute...

JN- ...Popatik hartzera bidaltzeko plazera hartzeko, sikiera. Baina egun inork ez du burua zerurantz jasotzen...

S- Jauna, libra nazazu heriotik. Zintzoa izan gura badut, aitortu behar dut txantxetan, txantxa hutsetan hartu dudala pistola hau. Imagina nire maiteak aurkitzen nauela. Zelako aurpegiarekin ikusiko nauen, burmuinak, nire burmuin zoragarriak, ohetik barreiatuta! Eta non geldituko da nire lerdentasuna...

JN- ...inortxok ere ez. Uste dut Aita Santua ere isildu dela. Atsekabetuta nago fededunen mutualdi hau ikusita...

HJ- ...nik baino hobeto ia-ia. Nora goaz? Orain Bizi Jainkosak beste inork ez dauka lanik Lurrean...

JN- ...eta behean dago atsekabetik atera nazakeen bakarra. Ai, Bizi Jainkosa, noiz egin genuen txortan azken aldiz...

HJ- ... Zelako nazka ematen didan zoro horrek bere betiko umore onaz eta baikortasunaz, leku batetik bestera jauzika...

S- Eta zer esango dute lankideek? Nagusi gizajoak ez du edukiko inor kontu guztiak berdindu eta ideia berriak emateko, negozioa behar duen moduan bultzatzeko. Izorra bedi. Negar egingo du, bai, baina dirua galduko duelako, eta barrezka ni, goitik. Bai, merezi du egitea, horretarako baino ez bada ere. (Lokirantz zuzendu du pistola)

1M- Badakizue zer? Aspertu egin nauk kantu honekin. Ea hau zelan intonatzen dudan:
Bat, bat, bat, bart errondan ibili, bart errondan ibili
bi, bi, bi, ez naiz ondo ibili, ez naiz ondo ibili,
hiru, hiru, hiru, golkoa bete diru, golkoa bete diru...
(Behin eta berriro abeste jarraitzen du)

4M- Badiosat keinuak pasatzen dabilela, duplesa oraingoan.

2M- Zergatik ez diok edalontziari begiratzen? Begira ze kolore polita duen ardoak, begira.

3M- Ez dik axola, besteak bere kantuekin ez dik ezer ikusten.

1M- Ikusiko ez diat bat! Bazakusaat, bazakusaat... hiru jainko larru gorritan, esate baterako.

3M- Hi, txo, astakeriarik ez esan, ezin diagu hori ikusi guk.

1M- A, ez? Tamala duk, ba, ikusten ez dudan jainkosa horrek egundoko titiak zauzkak-eta... Baina tira ba. Kalian gora, kalian behera, kalian gora zezenaiaiaiaia...

S- (Pistola burutik aldentuta) Ez baina, aurkitu behar dut bizitzeko arrazoiren bat... Gustura jango nuke izozki bat, txokolategkoa. Txokolategko izozkia eta barkilloak. Txokolategko izozkia eta barkilloak telebista aurrean, futbola ikusten... Eta partiduaren ostean hil? Eta irabazten badugu? Zelan izango dut hiltzeko gogorik partidua irabazi ostean? Ez, hobe partiduarekin ahaztea. Baina izozkia...

(Bizi Jainkosa agertu da, dantzan eta kantuka, tralaralarala, leku guztietatik, biluzik bera ere, besoak gorantz jasota)

JN- ... Zoro hori, zoro maitagarri hori, inori bizi gogoa eman nahian ibiliko da, bizi gogoa neuk behar dudanean...

HJ- ...errukarriren bat salbatu guran...

SJ- Hau nekea hemen neure burua ezik inor ez daukadala azala laztan diezadan. Hiru baino ez gara Zeruan geratzen, eta larrutan ibili barik, hemen gaude elkarri begira. Aizue, zer esan behar diozue horri? Neu, behintzat, ez naiz gogaitzeko jaioa...

S- Ez, izozkirik ez. Loditu egiten dute eta, gainera, hemendik mugitu behar nuke; pistola jateko utzi, koilarakada bakoitza gozatu... Eta erabaki tinkoa hartu dut nik: neure burua garbitu eta kito. Izozki eta gozokiekin hasi orduko, bizi poza berreskuratzeko arriskua dago, eta ezin onar dezaket hori. (Lokian jarri du pistola) Hotz dago hau, gero.

JN- ... Baina, zertarako ote naiz Zeruko nagusia, norik berak nahi duena egiten badu gero? Benetan diotsuet, hemen ez dago diziplinarik...

HJ- ... Eta salbatu ere salbatuko du, seguru...

JN- ...eta diziplina barik ezertxo ere ez dago...

HJ- ...baina dagoeneko bost axola niri. Berarentzat guztiak, nahi beste salba dezala...

SJ- ...atseginerako baino. Ez geratu hor kaiku biren antzera, ni hozten utzita. Zuekin bakarrik egoteko geratu naiz, gizon birekin...

S- (Pistola lokian oraindik, ohearen alde batera eta bestera begira) Ondo kokatu behar dut, ea danbadarekin ohetik jausten naizen, gero. (Altxatu eta ohe oinaren erdia jesarri da) Ea ba, hau da leku egokia. Saio orokorra egingo dut, benetako artisten moduan. Gauza handia da esteta izatea, herioaren azken kolpera arte. Danba, tiroa buruan, atzerantz jausi pistolari eutsiz, eta horrela, atzera, erdian etzanda geratu arte (ohean etzan eta berriro agondu da) Oso ondo geratu da... Baina jakin behar dut nora joango diren odola, burmuinak eta burezur zatiak. Onena, agian, bekokian tiro egitea litzateke; horrela atzerantz irtengo luke mamiak eta, bide batez, koadro abstraktua margotuko nuke izaretan. Oso garesti salduko da gero, agian.

JN- ... Bizi Jainkosa da neurekin behar nukeena, ez zuek, alfer halakook. Baina jaramonik ez Jainko Nagusiari inork, ez...

HJ- ... Egia esan, lan asko, ahal duena baino gehiago, egin beharko du, batez ere bere aldaberatasuna kontuan hartuta...

JN- ... Zertan datza, ordea, nire boterea, ororen gaintetik dagoen ahalmena? Barrua hainbestetan erre didan su aseegin hori? Lehen, zuzenean hitz egiten ziguten gizaemakumeek, nonahi zeuden guri eskainitako tenpluak...

HJ- ... Lanean hasi bezain arin ahazten da esku artean daukanarekin. Eta gizakiek ez diote oso erraz jartzen...

JN- ...begirunea erakusten ziguten...

SJ- ...aukera hori gutxitan izaten da-eta...

3M- Txikerra gure duk, eta zure jokoak eta nire hogeita hamaikak zazpi egiten diate.

2M- Gureztat nagusiko zazpiak, hire bikotea, nire duplesa eta enbidoa... hamahiru dituk. Bi horiekin hiru hamarrekona.

1M- Ze pena holako gauzak ezin ikustea guk, bestela, zelako emakume puska ikusiko nukeen... Seguru zaudete ezin dugula ikusi, ezta?

3M- Zinez, ba. Banatu eta ahaztu hori.

1M- Ondo zegok, ondo zegok. Izerdi gutxiago botako diat hola.

(Kartak banatu ditu)

Hau dok, hau dok, hau dok umoria
kontsolatzeko, kontsolatzeko, euskaldun jentia...

2M- Gainera, neska biluziak ikusteak ez zakarrek ezer onik.

3M- Zergatik diok hori? Ez zaik gustatzen ipurdi masail haragi asko dutenak eta titi borobil mamitsuak dinbili-danbala alde batetik bestera dantzan ikustea, ala?

4M- Ez diok ulertu, begi ondoan daukan ubelune horregatik ziok.

2M- Bueno, isildu biok eta ekin jokoari, berritsu halakook.

3M- Hi, konta ba. Zer dakik horretaz? Ez zuen hozkailuaren atearekin egin, ala?

4M- Hiri ere kontu horrekin etorri zaik? Bai, esango zian gauean lata bat garagardoren bila zihoala egin zuela. Gezur hutsa. Emazteak egin zioan, leihotik auzokoaren alabari zelan erantzten zen begira harrapatu zuelako.

2M- Mundu guztiari kontatu behar diok, ezta? Mingainluze hori.

3M- Hi, horregatik ez duk lotsatu behar. Lagunoi esan, hori bai, gustura ikusiko nitizkek neuk ere neskabila horren borobiltasunak.

2M- Bueno, gaia uzteko esan dizuet, ezta? Mus.

S- Baina, neure buruaren aurka nago, ala? Neu hil eta inor aberastu behar dut, gainera? Bueno, ez gaitzen urduritzen has. Pentsa dezagun zerk lotzen gaituen bizira... Ez, sexu gogoa ez da. Ez dut esango azken txortaldirako gogorik ez daukadanik... Hola jarraituz gero, kontrakoa ere esango dut, animoa, beste gauza batzuen artean, altxatuta... Baina, zer nabil ni? zer diot, baina? Gauza serioaz ari gara. Ondo, uxa ditzagun ideia arriskutsu horiek, eta bila dezagun arrazoi sendogorik...

(Bizi Jainkosa aldendu eta gelatik kantari eta dantzari ibili ondoren, desagertu egin da. Eskuinetik neska-mutil bi sartu dira, euren artean jostatzen, bata bestearen atzetik arineketan eta oihuka)

Mu- Son Goku naun ni, eta harrapatu egingo haut!!

N- Jo, hi haiz beti Son Goku. Neuk ere izan gura diat.

Mu- Ixo eta eutsi honi: kame hame haaaaa!!

N- Iiiiiiiii!!! Amaaaaa!!

Mu- Ez din balio, hil behar dun, edo borrokatu!

(Agertu diren moduan desagertu dira, mutila neskari darraiola)

S- Hasteko, ezin naiteke hil... ohea egin barik daukadalako. Noski, ba, zelan ez dut lehenago pentsatu? Sartzen den lehenengoa nire maitea bada, ezin nau aurkitu holako inguru nahasian... (Oheari begira geratu da, zalantzan) Baina, ohea egin nezake, noski, eta orduan, aurrera jarrai

nezake neure eginkizunarekin... Egiten badut, akabo aitzaki hori... Bueno, baina bururdia ez dut ipiniko, bestela ez dut margorik utziko izara zurian (altxatu eta ohea egin du, bururdia ohe oinean tolestuta utzirik, eta aurreko tokian jesarri da berriro) Orain hobeto, hiltzeko prest nago.

4M- Enbido.

SJ- ... Begira, hainbeste urtetan gizaemakumeen artean sexua normalizatu guran ibili eta etsita itzulita gero, holako jarrera hotza egin behar badidazue... Azkenean, haiek baino txarragoak ez ote zarete...

JN- ... Eta guztien artean, neu erdian. Zergatik? Zeuek ere begirunea azaltzen zenidatelako...

HJ- ... Beraz, zertarako ahaleginduko naiz inor heriora erakartzen, Lurrean nire aldeko hainbeste langile sutsu izanda?...

2M- Ez noak.

JN- ...ez oraingo moduan...

3M- Badakizue nola doan partidua?

4M- Zelan jakingo dugu, ba, irratirik ez badaukagu?

S- Hilda gero amaitu dira arazoak. Lankideek ez dute izango nork irakatsi squashean ondo jokatzeko, nork irabaz ditzan partida guztietan. Kar, kar, izorratuta utziko ditut, behin ere ni gainditu barik geratuko dira. Ez diet berriro esan beharko, partida bakoitzaren ostean: "ez larritu, hurrengoan hobeto egingo duzu". Gezur bera esaten beti, benetan gogoko dudalako haiek jipoitu eta apal-apal eginda uztea. Eta nire joko bikaina galduko dute haiek. Euren eredu, euren lagun zintzoa, Gauza guztietan haiek baino hobea dena beti. Ala, sufritu ni gabe. Egin negar nire elizkizunetan.

HJ- ... Hor ditut batzuk harri batzuegatik elkar hiltzeko prest, han besteak saio nuklearrekin, harago iraultza bukaezinak kontrairaultzek lagunduta...

SJ- ... Nik uste hauek bezalakoak zaretela zuek biok...

JN- ... Eta, zertan nintzen ezberdin tokirik gorenean egoteko? Entzuten nekien, orain dakidan bezala...

1M- Hark ez dik potrorik. Ez dik egingo, oiloorrek.

2M- Zer habil marmarrean?

1M- Ezer ez. Harekek ez dauko, ez dauko, preso tximiñoia...

S- Eta negarrik egiten ez badute? Ezin dut hori onartu... Azkenean ez hiltzeko zioa aurkitu dudalakoan nago. Bai, poztuko dira, agian, ni hilda gero, postutik igoko duelako baten batek, nirea betetzeko, eta hurrengoaren igoera ekarriko duelako horrek; hurrengoaren, hurrengoaren eta hurrengoaren igoera. Nazkagarrienek ere igoko dute... Ezin izan liteke hori... Edo bai, zergatik ez. Hola, alferrenek, ustelenek eta inkompetenteenek ere egingo dute gora, derrigorrez egin ere, eta hola, gehiago izorratuko dut nagusia. Hainbeste gauzeztan edukiko du inguruan, ezen enpresa osoa joango baita pikutara. To nire plusbalioa! Ondo, egin dezagun ba. (Begitaratean jarri du pistola)

(Bizi Jainkosa sartu da berriro, "Dringilin dron" abesten eta dantzan)

HJ- ... Hilketa ofizialak, legezko eraileak...

JN- ...eta, gainera, oreka, guztientzako lekua eta zeregina bilatzen nituen...

HJ- ...askapen mugimendu armatuak... Bai, lotsagarri uzten naute gizaemakumeek nire lanean...

S- (Pistola begitartean oraindik) Ez ote da inor garaiz iritsiko? Bueno, har ditzagun gauzak patxadaz. (Pistola alden du) Pentsa dezagun biziak zer ematen digun... Zer da bizitza? Jaiotzetik heriotzaraino doan tarte gozogabe hori; munduari lotuta morroi gaituen katea; eman diguna eskaini digun alaitasun berberarekin kentzen digun zitala; bere dantza mozkorrean poza ekarri eta daroaskun zoroa; nahigabeen ostean bere gorputzaren atsegina hartzen utziz berriro erakartzen gaituen urdanga; gu argitan aurkituta ilunetara merke saltzen gaituen etoia; etsi dugunean bihotzean ukitu artean gogoia zulatzen digun satorra. Eta bere joan-etorrietan sartu gura gaitu, bere zentzugabeko dantza eroan murgilarazi. Eta gu, errukarriok, haren atzaparretan jausten gara jaiotzen garetik. Ez, jaio aurretik, beraren amarruak ezagutzeko astirik izan baino lehen. Askatu nahi orduko, berriro liluraten gaitu irudi faltsuak guratzat sortuz. Badaki berak zelako zama astuna den beregandik aldentzea erabakitzea, eta horren bidez estutzen gaitu. Baina ez naiz haren sareetan berriro jausiko... Bueno, baina presarik gabe, noski, lehenago herioak zer eskaintzen didan aztertu beharko dut, hori ere ez baita fidatzekoa. Uste dut loalditxo baten ondoren, buruak atsedean hartuta, hobeto pentsatzeko gauza izango naizela. Eta, bide batez, norbait irits liteke, nire onerako... (Etzanda loak hartu du)

(Bizi Jainkosa Suizidaren ondoan etzan da. Minutu batzuetan 1. Mozkorrearen kantu etengabea eta mus partidaren soinua besterik ez da entzun)

JN- ... Zer da, baina, boterea? Hori bai, ez erabiltzearen poderioz ahaztu dut zer den hori...

HJ- ...Baina, batez ere, beste arma sotilago bat orokortu dute...

SJ- ...guztiok dituzue gogoia eta grina egiteko, baina oztopoak ipini besterik ez dakizue egiten, azkenean nork bere aldetik amaitzeko, gauzak bakardadean egiten...

3M- Mus. Ekarri hona botila hori. Munduan ez zegok edalontzia hutsik edukitzea baino ezbehar latzagarrik.

2M- Mus. Ez nagok ados. Konpon litekek hori, botilan oraindik ardoa badago. Bera duk ezbeharrik latzena, botila guztiak hutsik egotea.

4M- Mus. (Laurek kartak bota dituzte eta 1. Mozkorrak berriak banatu ditu) Izugarria duk hori guztia, bai, baina zer deritzozue irratirik gabe egoteari? Agian, gu mozkortzen garen bitartean gure taldea galtzen zoak. Hori bai dela latza. Irabazten badugu, ezin diagu ospatzeko edan, eta galtzen badugu, ezin ditiagu penak ardotan ito. Beraz, edan behar diagu, zergatik egiten dugun jakin barik.

(Mozkorrak isildu dira eta, une batez, isiltasuna da nagusi)

1M- Ezin diat sinistu hain azaleko gogoetak egin ditzakezenik. Hor ibil litekek inor, bizitzari benetan aurre egiten, benetako arazo haraindikoak buruan dituela, eta zuek metafisika hutsaz mintzo. Enbido.

Hegoak ebaki banizkio, neria izango zen, ez zuen alde egingo. Bainan honela...

3M- Filosofoa izango duk hau, azkenean. Geure arazoez arduratzen gaituk gu, ez gaudek mundua konpontzeko. Baina hain eztabaida ederra sortu orduko, hor etorri behar dik mistiko horrek izorratzen... Bost gehiago.

4M- Ez berotu, laguna, partida osoa ari gaituk honetan jokatzen.

JN- ... Lehen, esaten nuena egiten zen edo, bestela, Zeruko amorrua zetorkeen...

SJ- ... Eta ez esan zertaz ari naizen ez dakizuela, kontu hau denok daukagu-eta nahiko argi...

HJ- ... Honek bai ekarri didana jubilazioa, honen bidez nik urtetan lortzen nuena lortzen dute egun bakar batean...

(Suizida itzartu eta lehengo lekuan agondu da. Hizketan hasi orduko Bizi Jainkosa ere jaiki eta bere dantzari ekin dio gela osotik)

S- Askoz hobeto nago orain... Baina bitartean ez zait inor etorri. Tira ba. (Eskuan duen pistolari egin dio so) Non geratu naiz lehen? A, bai, hausnartu behar dut herioak zer eskaintzen didan... Zer da herioa? Zer da heriotzaren unetik aurrera dagoena? Zer ote da hilda egotea? Hemen egongo nintzen ni, hori baneki... Argi dago biziaren bestaldean dagoena ezagutuko banu, nahiko zentzugabea litzatekeela egoera hau. Hemen daukadana baino hobe balitz, bertan nengoke aspalditik, eta txarragoa balitz, ez nukeen pistola hau erosiko... Baina, zerk naroa heriorantz? Eros eta Thanatosen arteko borroka bukaezina dateke. Edo nire azken momentua neuk erabakiz askatasunaren adierazpena goren mailaraino eroatea. (Begiak gorantz jaso ditu, pistola bularraren kontra estutuz) Nire balorea neure buruari erakutsi, mundu zuzengabe honen aurkako nire azken matxinada burutu... (Begiak jaitsi ditu pistolari zalantzaz begiratzeko) Ez ote dut egiten nire maiteari zirrara sortzeko? Egia esan, inoiz ere ez naiz ezeren aurka matxinatu, eta balore gutxi daukadana ondo dakit, orain inolako erakustaldirik egiteko... Badakit edonork hartuko lukeena pistola hau eta tiro egingo lidakeena, nire pedanteriaz gogaituta. Uste dut neu ere nagoela neure berba jario aspergarriaz gogaituta. Tamala da, benetan, txokolatzeko izozkia barkilloekin azken aldiz ez jatea eta gaueko konkurtsoa grabatu barik uztea, baina, gutxienez, marrazki abstraktua utziko dut atzean nire maiteak diru piloa irabaz dezan.

1M- Hordago!

Danba! (Pistolaren danbada entzun da. Orratzak ohe inguruan biraka ibiltzeari utzi diote bat-batean eta geldirik geratu dira. Ohean datza suizida, hilda, eskuak pistolari deusola. Bizi Jainkosa ohe gainetik igaro eta dantzan jarraitu du han-hemenka)

2M- Ondo egon duk hori, laguna, irabazi diagu!

4M- Farolez jokatzen zuela uste izan diat, neuk ere ez neukaan karta txarrik.

3M- Ez duk ezer gertatzen, motel, ardoa zeukaagu oraindik. Topa dagigun, lagunak.

(Topa egin dute lau mozkorrek)

1M- Egun da Santimamiña, benetan egun samiña, goiko zeruak gorde dezala luzaro nere arima... (Bakarrik hasi da baina hirurak batu zaizkio berehala. Laurok abesten dute amaia arte)

(Neska-mutilak sartu dira arrapaladan)

Mu- Erakutsidan, erakutsidan.

N- Ez! Son Goku izaten uzten ez badidak ez duk ezer ikusiko.

Mu- Ez din balio, nik erakutsi dinat!

N- A, hire errua duk. Utzi Goki izaten eta erakutsiko diat.

Mu- Iruzurtiori! Harrapatuko haut eta ikusi egingo dinat!

N- Ez dakik galtzen. Ezetz harrapatu!!

(Barrezka eta oihuka alde egin dute neska-mutilek, bata bestearen atzetik)

JN- ... Gizaemakumeen bizitzak nire eskuetan zeuden, neuk erabakitzen nuen nor bizi eta nor hil. Gura nuen emakumea hartu eta sasi- eta giza-jainkoak sortzen nituen...

SJ- ... Beti berdin, kontrakoa esan arren hemen ez dira ohiturak berritu eta gero bortxaketak, pornografia...

HJ- ... Benetan ez nuen inoiz uste izan goseak holako emaitza harrigarriak ekarriko zituenik...

JN- ...edo zeruko edozein jainkosa, izorraldi zerutiarra burutzeko. A, haiek bai garai onak. Baina orain, lanik ez dudanez gero, gaitasunak galdu ditut eta ez nago ezertarako, antza...

HJ- ... Azkenean lortu da hainbatek eta hainbatek bizi gogoa galtzea edo babes nire morroi leial horretan bilatzea, drogan...

JN- ...orduak etzanda emateko ez bada. Nire zoro kutunak Lurreko bere lana horrenbesteko ganoraz hartuko ez balu, zeri ekin izango nuke, behintzat.

HJ- ...Esan bezala, nire beharrik ez dago, eta hemen gelditu naiz, erretiroan zuekin biokin. Telebista hondatuta egotea da pena bakarra.

SJ- ...larru salmenta eta negozio ilunak, aurpegi bikoitzak, itxurakeria, psikopatia mota guztiak..., eta, bukatzeko, lotara noa, zuekin solastatzea denbora galtze hutsa baita, ea hola, gutxienez, amets hezerik egiten dudan. Argiarekin ez ahaztu gero, Iberdrolak jainkoei ere ez baitigu barkatzen.

(Bizi Jainkosa Suizidaren ondoan etzan da, gorputza bilduta. Mozkorrek kantua amaitu dute, ardoarekin batera)

Amaia